



1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA
AZTERKETA IDATZIA

A eredua

1. ABIZENA _____	2. ABIZENA _____
IZENA _____	NORTASUN-AGIRIA _____
LANTOKIA _____	KATEGORIA _____
AZTERKETA-EGUNA _____	AZTERKETA-TOKIA _____



ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak ariketa bi daukaz: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Ariketa bi honeek egiteko **ordubete eta 20 minutu** eukiko dozuz.
- Irakurri eizuz ariketa bakotxaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoaz egin behar dira. Ahalegindu zaitetz letra txukuna egiten.
- Zirriborro-orrietan idatzitakoa ez da zuzenduko.



1. IRAKURMENA

Ariketa-motea: EGIA ala GUZURRA

Zelan egin:

- Behean testu bat daukazu eta jarraian testu horren gaineko ariketa bat.
 - Ariketa egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtea gomendatzen deusugu.
 - **Ariketa-orrian** datozan esaldiak egia ala guzurra diran markau behar dozu **erantzun-orrian**.
- Ariketa hau gainditzeko, gitxienez 9 egin behar dozuz ondo.

BERTSOLARIOK EZ DOGU BATAK BESTEAREN KONTRA ABESTEN

Unai Iturriagak 33 urte daukaz eta durangarra da. Txapelketa nagusietan finalista izan da. Gainera, 1990. urtetik aurrera Bizkaiko txapelketa guztietan heldu da finalera eta herrialdeko hiru txapel jantzi ditu.

Bertsolaria zara. Noiz erabagi zenduan horretan jardutea?

Gauza bat da bertsotan hastea eta beste bat da erabagitea bertsolaria izan behar dozula. Ni 13 urte gaz hasi nintzan mundu honetan eta 18 urtera arte eskolako txapelketak, saioak eta abar egin nebazan. Egia esan, ez dozu erabagiten bertsolaria izan behar dozula. Baina 22-23 urte gaz pentsau neban: "Honaino heldu naz eta zer egin behar dot aurrerantzean?". Eta holan izan zan gitxi gorabehera.

Abestu zenduan lehenengo aldia zelan sentidu zinan?

Nahiko urduri. Hamahiru urte gaz izan zan lehenengo aldia bertsoak txapelketa batetik kanpo abesten nebazala. Urduri nengoan lehenagotik bertsoak pretauta neukazalako, baina denporea pasau ahala konturatu nintzan hori askoz okerragoa dala bat-batean egitea baino. Buruan badaukazu guztia eta berbaren bat ahazten bajatzu, ez daukazu zer eginik. Hasieran lagunartean kantetan



genduan eta abesteak alaitasuna emoten euskun. Sentimentu bi honeek nahasten ziran: urduritasuna eta alaitasuna.

Ze bertsolariren kontra euki dozu zailtasun gehien?

Bertsolariok ez dogu batak bestearen kontra abesten, ez daukagu areriorik eta. Zailtasun bakarra izan leiteke biderik ez aurkitzea bertso bat egiteko orduan. Halanda be, batzukaz errazago egiten jatzu. Niretzat errazena Igor Elortza ondoan eukitea da, nire bertso-kide izateaz gainera, nire lagun-taldekoa dalako. Oso ondo ezagutzen dogu alkar, eta batak zeozer esaten dauanean besteak badaki zertan pentsetan dabilen. Baina danok daukaguz hartu-emon onak, horregaitik ez dago bildurrik batagaz edo besteagaz abesteko.

***“Berandu da gelditzeko”* liburua idatzi dozu. Zelan bururatu jatzun?**

Niri irakurtea asko gustetan jat, eta horretatik hasi nintzan; ausardia handiaz, egia esan. Irakurten hasi nintzanean, pentsau neban ea zer irakurtea gustauko litxakidan niri. Denporaldi horretan nahiko libre nengoan, eta inork ez ekian idazten nenbilela. Pentsetan dot jenteak ausardia handia daukala idazteko orduan, eta oso gatxa da zure lehenengo obrea maisulana izatea.

Bertsoak abesteko sasoian, zelan konzentretan zara?

Ez dot pentsetan konzentrazino handirik behar danik. Dana dala, bertso-afari baten zagozanean, esate baterako, gatx egiten jatzu batzuetan danakaz berba egin eta afaldu ostean bat-batean abesten hastea, minutu bateko konzentrazinoa behar da. Txapelketetan zagozanean, bakotxak bere konzentrazino-modua dauka, batzuek tensinoa kentzeko saltu edo arineketan egiten dabe, adibidez. Azterketa baten aurrean daukazun tensinoaren antzekoa da. Nik tensinorik handienak solfeoko azterketetan pasetan nebazan.

Liburuaren eguna ospatzen gabilzala eta, zein da gehien gustetan jatzun liburua?

Liburu bat esatea oso gatxa da, asko dagoz eta. Niri batez be nobela baltza gustetan jat. Genero hori benetan be zabala da. Idazleen artean, Joseba Sarrionandia asko gustetan jat, bere bertso-bildumea oso zabala eta polita da.

Euskonews Gaztea, 33. zk.
Egokitua



1.1. ARIKETA-ORRIA

EGIA ala GUZURRA?

1. Unai Iturriagarentzat gatxagoa da prestatutako bertsoak abestea.
2. Ezagutzen ez dituan bertsolariakaz abesteak bildur apur bat emoten deutso Unairi.
3. Unai 18 urtegaraz erabagi eban bertsolaria izan behar ebala.
4. Unai hiru txapelketa nagusi irabazi ditu.
5. Unai Igor Elortzagaz abestea oso erraza egiten jako, bertso-kidea eta laguna dalako.
6. Unai Durangon jaio zan orain dala 33 urte.
7. Unai ez zan bape urduri ipini abestu eban lehenengo aldian.
8. Lagunek animau eben Unai bere lehenengo liburua idazten.
9. Bertso-afarrietan oso erraza da bat-batean bertsoan hastea.
10. Unai poesia gurago dau nobela baltza baino.
11. Idazten dan lehenengo obrea bikaina izatea gatxa iruditzen jako Unairi.
12. Azterketetako tensinoa eta txapelketetako konparetan ditu Unai.



2. IDAZMENA

Egitekoa: INPRIMAKIA BETETEA

Zelan egin:

- Gitxienez 90 berba idatzi behar dozuz.
- Ahalegindu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoaz idatzi behar dozu.

GAIA: Etxe azpian kafetegi bateko terrazea dago, eta ez ditu errespetetan Udalak baimena emoteko ipinitako baldintzak: ordutegia, garbitasuna, aulki- eta mahai-kopurua, zaratea...

Udaltzaingora joan zarie salaketea ipinten. Azaldu zer gertatzen jatzuen eta zelako arazoak sortzen deusuezan kafetegiak.

Oharra: Kontuan euki ez dozula eskutitza idatzi behar; ez idatzi, beraz, gutunetako betiko agurrik ("eskaerea onartuko dozulakoan", "beste barik", "honenbestez agur"...)..



Z
I
R
R
I
B
O
R
R
O
A



1.2. ZUZENKETA-ORRIA — A eredia

Irakurgaia: "Bertsolariok ez dugu batak bestearen kontra abesten"

Ariketa-mota: EGIA ala GEZURRA

Baremoa: ariketa hau gainditzeko, gutxienez, 9 egin behar dira ondo.

ERANTZUN ZUZENAK

A eredia

1	E	7	G
2	G	8	G
3	G	9	G
4	G	10	G
5	E	11	E
6	E	12	E